



Xabier Gantzarain. BERRIA

tasuna areagotzen dute; etengabe ko irribarre-erdi batez irakurri ditut testuko hainbat pasarte.

HAUR ETA GAZTE LITERATURA IMANOL MERCERO

Literatur kritikaria

'Harri bat poltsikoan'

Idazlea: Nerea Loiola

Ilustratzailea: Rocío Irigoien

Argitaletxea: Erein

Urteko errepasoa idazle hasiberri baten obrarekin hasia beti da pozgarria. Nerea Loiolaren *opera prima* lehen irakurleentzako aproposa den narrazioa da: istorio laburra (50 orrialde) eta lineala da, pertsonaia gutxi dituena, eta hamar atalean banatuta dagoena. Irudi asko ditu, baina tonu afektiboa azpimarratzeaz aparte, ez dute ekarpen narratiborik egiten. Protagonista ere irakurlearen adin bertsukoa da, autoestimua- rekin kili-kolo dabilena.

Sinpleki, arazoa nola gainditzuten duen azaltzen da, kontaketa eredu-emaile baten bidez, narrazioaile amultsu baten hitzetan. Merez du ozenki irakurtzen saiatzea, anekdotei darien umorea partekatze, baina baita kontakizunean zehar helduek haur-aren arazoaren aurrean nola jokatzuten duten ikusi eta ikasteko ere.

'A'

Egilea: Lorena Martínez Oronoz

Argitaletxea: Denonartean

Idazle belaunaldi berri bat agertzen ari da, poliki bada ere, euskal letretan. Joera askotarikoetan, molde zaharretara zaletuta datoz batzuk, egiteko modu berriak arakatzan bestetuz. Esaterako, berritzailetan ausart bezain interesgarri ari zaigu Lorena Martínez, euskal sortzaileentzako ezohikoa den adin txikieneko ira-

kurleentzat sortzen gainera. Iaz *Zortzi kolore* narrazio biluzien katalogo aski interesgarriarekin («Poesiaren eta albumaren arteko lana» Xabier Etxaniz Erleren arabera), aurtun A/bitxi honekin.

A/ irakurtzen ez dakitenek autonomoki irakur dezaten egina da, hiruzpalau urtetik aurrerakoek irakurketaren zirrara dasta dezaten. Testua letra bakarrak osatzen du, eta irudiek daramate narrazioaren haria, irakurlearengan probokazio bat sortzen duena, solasean aritu dadin obrarekin, edota irakur-kideekin.

'Kantu bat Alikarentzat'

Idazlea: Antton Kazabon

Argitaletxea: Ibaizabal

Euskal sortzaileen publikazioei erreparatuta, idazle kontsakratuen berrargitalpen zuzendu eta gaurkotuak albiste izan ditugu, hala nola Yolanda Arrietaren *Mari Xor*, Pello Añorgaren *Zupankapaloak* edota Juan Kruz Igerabideren *Grigor*, bai eta sortzuntza berriak ere, Patxi Zubizarretaren *Korri*, *Kuru*, *korri!* saritua kasurako. Aurtengo publikazioei erreparatuta, nabari da molde berrietan dabilatzala idazle guztiak, aritu zein hasiberriak. Nabarmena da jada ez dela denborapasako literaturarik sortzen (Gaizka Arostegiren *Nerbioi zinemako sekretua* litzateke salbuespen bakanetakoa), orain literatur pedagogikoa eta aberasgarria sortzen da, irakurleari pertsona hobe izaten laguntzea xede duena.

Aspaldi ari da Antton Kazabon ildo honetan, eta *Kantu bat Alikarentzat* adibide eredugarria da.

Emozioei buruz hitz egiten duen obra da, emozioak adieraztearen garrantzia azpimarratzen duena, eta batik bat estereotipo maskulinoari eragiten diona.

Gero eta liburu gehiago ekartzen da beste hizkuntza batzuetatik euskarara, eta ugaritasuna bezain inportantea da lanon kalitatea. Aurtun ere, munduko idazle interesgarri askoren lanak euskaratu dira.

Buruhauste atsegina

Joannes Jauregi
Imanol Mercero

Euskal itzulpenak urtebetean eman duenaren errepasoa egin ahal izatea bera bada, inondik ere, pozerako motibo. Ez alferrik, hamaika ale aipagarri ditugu aurtun; hainbeste, non buruhauste ere baden horien guztien artean bakan batzuk nabarmendu beharra. Atseginez hartzen den buruhauste, baina; hainbat irizpide onar ditzakeena eta ezinbestean motz geratuko dena beti.

Narratiban, munduko narrazioaile gailen ugari euskaratu dira aurtun, eta alferrikakoa litzateke bat nabarmentzea besteen kaltean. Esaterako, Alice Munro eta Kazuo Ishiguro Nobel saridunak ditugu, zeinak izango baitira seaguru asko aurtun itzuliriko literatur lanik onenak, barka hitz tabua. Maistra-maisulan hutsak batira Munroren *Etsalak*, *maitaleak*... eta Ishiguroren *Egunaren hondarrak*, bi egileek ulertzen eta baliatzen baitute literatura bera adierazpen molde gisa. Beste makina bat narrazioaile bikain ere euskaratu dira—Mario Benedetti, Jack Kerouac, Julian Barnes...—, baina, bat nabarmentzekotan, Yan Liankeren *Balou mendikateko kanta* nabarmenduko nuke, ez soilik itzulpen lanagatik—txineratik zuzenean euskaraturiko liburu bakanetakoa baita—, baizik eta baita narrazioaren bereziagatik ere, egileak *mitoerrealismo* deitzen duen horrengatik. Oihartzunik apenas izan duen altxor bitxi bat.

Poesiari dagokionez, ekoizpena apalagoa izan ohi da—are gehiago itzulpenaren alorrean—, baina beti egoten da nabarmentzeko moduko harribitxirik. Aurtun, hain justu, literaturaren historian elkarrengandik gertu xamar egon ohi diren bi izen euskaratu dira, bakoitza bere alde-rik; Alejandra Pizarnik Munduko Poesia Kaierak bilduman, eta Sylvia Plath Pasazaite argitaletxean. Peru Iparragirre kritikar-ikideak ederki azaldu zuen Pizarniken poesiaren subjektibotasu-nerako joera, eta nago haren hitzek bi poetentzat balio dutela:



Alice Munroren *Etsalak*, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak argitaratu dute aurtun, Isabel Etxeberriak itzultia. JERRY BAUER / ÉDITIONS DE L'OLIV

«Hain da indartsua bere *ni* poetikoa, irakurlea bere baitan hartzen duela, *ni* bakarria balego legez».

Saiakeraren eremuan, bereziki da nabarmentzekoa azken urteotan pentsamendu feminista ekartzeko egiten ari den lana eta lorturiko fruituak; urtez urte, Silvia Federici, bell hooks, Angela Davis eta beste hainbat irakurri ahal izan ditugu Eskafandra eta Lisipe bildumei eta Katakarak argitaletxearen jardunari esker. Alerik nabarmentzekotan, Eskafandra bildumaren azken alea hartuko nuke, Carole Patemanen *Kontratu sexuala* mardula, zeina metafora bat izan baitaiteke, ahalegin arrakastatsu horren seriotasun, sakontasun eta merezimendu guztia den isla.

Horiek 2018an euskarara ekarritako ale batzuk. Aurrerantzean ere segituko dugu, noski, munduko literaturaren altxorak geurreratzin.

Haur literatura

Haur eta gazte literaturan ere izan da nabarmentzeko moduko itzulpenik. *Gorri!*—Alice Briere-

Haquetek idatzia, Elise Carpentierrek marraztua, Jean-Louis Davantek euskaratua—(Ikas) album barre eragilea da, sinplea, egitura errepikakorrean gag sorta bat eskaintzen duena. Argi ibili, halere, darabilen umorea ez baita txepela. Ironia dario, alerik ale, amaierako azken ateraldira arte;

Nabarmentzekoa da pentsamendu feminista ekartzeko egiten ari den lana eta lorturiko fruituak

zeinak otsoaren atzaparrak erakusten baititu, adimen bihurriko kontalari batek egingo lukeen eran.

Jacques Prevert-en 1943ko poema homonimo batean oinarriturik, *Txori baten portreta egiteko* (Pamiela—Kalandraka) nabarmentzen du zenbateraino den album ilustratua egungo literatur-sorkuntza baliabide puntakoena. Nola den gai testuen berrirakurketa egiteko, literatura unibertsalaren ekarpenak tresna berriekin zabaldu eta eguneratzeko.